

15/05/2009

Museoen nazioarteko egunean hainbat jarduera izango dira.

Zapatu gauerako nahiz domekarako egitarau berezi eta zabala antolatu dute eskualdeko hiru museok.

MUSEOEN NAZIOARTEKO GAUA ETA EGUNA

Aste bukaera honetan museoek protagonismoa hartuko dute. Izan ere zapatuan Museoen Nazioarteko Gaia izango da eta domekan, aldiz, Museoen Nazioarteko Eguna.

Busturialdeko zenbait museok ere hitzorduarekin bat egin dute eta jarduera ugari prestatu dituzte.

Hain zuzen ere, egun hauetarako egitarau berezia izango duten eskualdeko museoak hiru izango dira. Gernika-Lumotik, Bakearen Museoak eta Euskal Herria museoak parte hartuko dute eta Bermeotik, berriz, Arrantzaleen Museoak egingo du bat Museoen Gauarekin zein Egunarekin.

Zapatu gauean zein domekan ez da ezer ordaindu beharko museo horietan sartzeko, eta haur zein helduentzako jarduerak antolatu dituzte.

Museoek egitarau zabala antolatu dute eta jarduera ugari izango dira. Euskal Herria museoan, esaterako, zapatu gauean bakailaoari buruzko hitzaldia izango da eta ondoren bakailoa dastatzeko aukera edukiko dute gerturatzen direnek. Hurrengo egunean lorategiko jolasak eta haurrentzako tailerrak antolatu dituzte.

Horrez gainera, zapatu gauean eta domekan doako bisita gidatuak eskainiko dituzte museoetako langileek eta museoak bisitatzeagatik opari bana jasoko dute bisitariak.

Santimamiñen ere izango dira jarduerak.

MUSEOEN NAZIOARTEKO GAUA ETA EGUNA

Eskualdeko museoek prestatutako egitarauak hauek izango dira:

Gernika-Lumo, Bakearen museoa.

Zapatua.

- 19:00 etatik 00:00etara, sarrera doakoa izango da.
- 19:30ean, 20:30ean, eta 22:00etan, bisita gidatuak.
- 18:30etik 22:30era, munduko jolasak.
- 20:30ean, txokolatada.
- 20:30etik 22:30era, munduko musikak entzuteko parada izango da.

Domeka.

- 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara, sarrera doan eta bisitarentzako opariak.
- 11:00etatik 14:00etara, umeentzako tailerrak.
- 12:30ean eta 17:30ean, doako bisita gidatua.

Euskal Herria Museoa.**Zapatua.**

- 19:00etatik 00:00etara, sarrera doan izango da.
- 19:30ean, bisita gidatua.
- 20:30etik 22:00etara, bakailaoari buruzko hitzaldia. Ostean, bakailao dastaketa.

Domeka.

- 11:00etatik 15:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara, sarrera doan eta bisitariantzako opariak.
- 11:00etatik 14:30era, umeentzako jokoak lorategian.
- 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatuak.
- 17:00etatik 19:00etara, haurrentzako tailerrak.

Bermeo, Arrantzaleen museoa.

Zapatua. - 16:00etatik 22:00etara sarrera doan izango da eta bisitari bakoitzak opari bat jasoko du.

Domeka. - 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara sarrera doan izango da eta bisitari bakoitzak opari bat jasoko du.

Endika Urlezaga